## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### INGURUMENEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

*Diru laguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2014ko deialdia: Tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzekoak.*

Diputatuen Kontseiluak, 2014ko martxoaren 25eko bileran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

«Gipuzkoako Foru Aldundiak, herri erakunde gisa, bere gain hartu du Europar Batasunak arazo energetikoaren irtenbidea bilatzeko toki-erregio mailako ekintzarako egindako deialdiari erantzuteko betebeharra. Izan ere, erakundeak jarduerak burutzeko duen gaitasun legitimoez baliatuz emango du erantzuna, dituen zuzeneko eskumenen eta udalei laguntza eta lankidetza emateko eskumen subsidiarioen arabera, dituen baliabide administratibo, juridiko, tekniko eta ekonomikoen arabera, lurraldeko gertutasunaren arabera eta maila handi batean ekintzak burutzeko gaitasunaren arabera eta udalerriekin eta beste agenteekin hainbat tresnen bitartez duen eguneroko harremanaren arabera.

Materia energetikoan aurrera egin nahi bada ezinbestekoa da ulertzea eragile askok hartzen dutela parte. Aurrezpenaren eta eraginkortasunaren kontzeptuek, zein dibertsifikazio energetikoaren, generazio banatuaren edo autohornikuntza energetikoaren kontzeptuek berekin dakarte sistema osoko ekintzaren dibertsifikazioaren osagarria, hau da sorrarazi behar diren jarduera koordinatuen hedapena.

Estatu mailan edo erkidego mailan materia energetikoan eskumen sektorialak dituzten erakundeek jokatzen duten funtsezko eginkizunetik haratago, ezinbestekoa da tokiko gobernuek beren eskumen ekintza birbideratzea, titular sektorial horiekin koordinatuta irizpide energetikoak jarraituz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak materia energetikoan duen eginkizuna ere definitu behar du, bai bere ekintza zuzenaren norabidea —iraunkortasunarengatik eta eredu izateko— baita udalerriekiko dituen laguntza eta lankidetzako erantzukizun subsidiarioak ere, ekintza partekatuen bitartez garatzen direnak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, «Energia-Ekintzak 2012-2015 Gipuzkoako Foru Planaren» bitartez, sistema energetiko iraunkor baterako trantsizioa errazteko lanetan lagundu nahi du, Europako helburuetan parte hartzeko eta aginduak betetzeko. Agiri horrek 6 zenbakiko ildo estrategikoa dauka: Tokiko eta eskualde mailako ekintza, eta ildo estrategikoaren xedea da tokiko eta eskualde mailako politika energetikoen ezarpena bultzatzea eta udalez gaindiko izaerako behar energetikoak aurkitzea, koordinatzea eta laguntzea. Ildo estrategiko horrek bere baitan jasotzen du udalerrietako iraunkortasun energetikoko proiektuak bultzatzeko 6.2 Programa.

Zentzu horretan, iaz tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko diru laguntzen lerro bat ireki zen, arrakasta handiz; beharrezkotzat jotzen da diru laguntzen lerro horrekin jarraitzea eta aurrekontu zuzkidura handitzea, sortu duen interesa dela eta. Hain zuzen, erabaki honen bidez onartzen dira diru laguntzen oinarri arautzaileak, eta 2014ko deialdia.

Beraz, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta gaiaz hitz egin ondoren, Diputatuen Kontseiluak,

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACION DEL TERRITORIO

*Bases reguladoras y convocatoria 2014 de las subvenciones para el impulso del ahorro y la eficiencia energética local.*

El Consejo de Diputados en sesión de fecha 25 de marzo de 2014 adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

«Esta Diputación Foral de Gipuzkoa, ha asumido la obligación de responder como institución pública al llamamiento de la Unión Europea a la acción local-regional para la contribución a la solución del problema energético, y lo hace desde su potencialidad legítima de actuación con arreglo a sus competencias directas y a sus competencias subsidiarias de asistencia y cooperación hacia los municipios, a sus recursos administrativos, jurídicos, técnicos y económicos, a su proximidad al territorio y capacidad de acción a mayor escala y a su relación cotidiana con los municipios y otros agentes a través de numerosos instrumentos.

Si se quiere progresar en materia energética ha de entenderse que son muchos los agentes llamados a intervenir. Los propios conceptos de ahorro y eficiencia, de diversificación energética, de generación distribuida, o de autoabastecimiento energético, llevan implícita la componente de diversificación de la acción en todo el sistema, un despliegue de actuaciones coordinadas que hay que contribuir a generar.

Más allá del reconocimiento de un papel titular de los organismos competentes sectoriales en materia energética a nivel del estado y de la comunidad autónoma, es imprescindible que los gobiernos locales reorienten su acción competencial bajo criterios energéticos en coordinación con dichos titulares sectoriales.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha de definir su papel en materia energética también, tanto en cuanto a la reorientación de su propia acción directa –por sostenibilidad y ejemplaridad- como en cuanto a sus responsabilidades subsidiarias de asistencia y cooperación hacia los municipios, las cuales se desarrollan a través de acciones compartidas.

El Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del «Plan Foral Gipuzkoa Energía-Acciones 2012-2015", busca contribuir a la urgente tarea de acelerar la transición hacia un sistema energético sostenible, en cumplimiento de los mandatos y participación en los objetivos europeos. Dicho documento cuenta con la Línea Estratégica n.º 6: Acción Local y Comarcal, cuyo objetivo es impulsar la implantación de políticas energéticas locales y comarcales así como detectar, coordinar y apoyar necesidades energéticas de carácter supramunicipal. La citada línea estratégica incluye el Programa 6.2, para el impulso de proyectos de sostenibilidad energética en municipios.

En tal sentido, el año pasado se abrió con éxito una línea de subvenciones para el impulso del ahorro y la eficiencia energética local que, dado el interés que han despertado, se considera conveniente continuar, incrementando notablemente la dotación presupuestaria de la misma. Mediante el presente acuerdo se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria 2014 de dichas subvenciones.

Por consiguiente, a propuesta del diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo:* Onartzea tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak: Erabaki honen I. eranskinean jasotzen direnak.

*Bigarren:* Diru laguntza horien 2014ko deialdia onartzea: Milioi bat eta hogeita bost mila (1.025.000,00) eurokoa. Deialdia erabaki honen II. eranskinean jasota dago.

*Hirugarren:* 2014ko deialdirako 1.025.000,00 euroko gastua baimentzea, aurrekontuko sail hauen kontura:

1.0710.150.461.01.01.2014
1.0710.150.461.02.01.2014
1.0710.150.470.00.01.2014
1.0710.150.761.01.02.2014
1.0710.150.761.02.01.2014
1.0710.150.770.00.02.2014
5.0710.150.761.01.02.2015
5.0710.150.761.02.01.2015
5.0710.150.770.00.02.2015

*Laugarren:* Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaile hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunetik aurrera izango dute eragina.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean aurkez dezakete administrazioarekiko auzi errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, argitaratu eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, interesatuek aukera dute berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko EPEAn, argitaratu eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke».

Donostia, 2014ko martxoaren 27a.—Juan José de Pedro Alonso idazkari teknikoa.

(1192) (3046)

I. ERANSKINA

*Tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzeko diru laguntzen oinarri arautzaileak.*

*1. oinarria. Xedea.*

1. oinarri hauen xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalentzat eta udalerri eta eskualde mailako merkataritza sozietateentzat diru laguntzak arautzea, eraikinetan, instalazioetan eta herriko argiterian aurrezpena eta eraginkortasun energetikoa bultzatzea, energia berritzaileak instalatzea, ibilgailu eraginkorrak erostea eta abar xede duten inbertsioak egiten dituztenei zuzendutakoak.

a) Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa eraikinetan, instalazioetan eta azpiegitura publikoetan:

— Egitea energia hobetzeko azterlan eta planak eta energia-auditoria integralak.

— Egitea udal azterlan eta planak, prebentzioari eta pobrezia energetikoari aurre egiteko.

ACUERDA

*Primero:* Aprobar las bases reguladoras de la concesión de las subvenciones para el impulso del ahorro y la eficiencia energética local, que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo:* Aprobar la convocatoria de 2014 de dichas ayudas, con un importe de un millón veinticinco mil (1.025.000,00) euros, que se adjunta al presente acuerdo como anexo II.

*Tercero:* Autorizar un gasto por importe de 1.025.000,00 euros para hacer frente a la convocatoria del año 2014, con cargo a las siguientes partidas:

1.0710.150.461.01.01.2014
1.0710.150.461.02.01.2014
1.0710.150.470.00.01.2014
1.0710.150.761.01.02.2014
1.0710.150.761.02.01.2014
1.0710.150.770.00.02.2014
5.0710.150.761.01.02.2015
5.0710.150.761.02.01.2015
5.0710.150.770.00.02.2015

*Cuarto:* Las bases reguladoras aprobadas por el presente acuerdo producirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposicion ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente».

San Sebastián, a 27 de marzo de 2014.—El secretario técnico, Juan José de Pedro Alonso.

(1192) (3046)

ANEXO I

*Bases reguladoras de las subvenciones para el impulso del ahorro y la eficiencia energética local.*

*Base 1.ª Objeto.*

1. Es objeto de las presentes bases la regulación del otorgamiento de subvenciones a los ayuntamientos y sociedades mercantiles municipales y comarcales del Territorio Histórico de Gipuzkoa que realicen inversiones cuyo objeto sea el ahorro y la eficiencia energética en edificios, en instalaciones y en alumbrado público, la instalación de energías renovables, la adquisición de vehículos eficientes, etc.

a) Ahorro y eficiencia energética en edificios, instalaciones e infraestructuras públicas:

— Estudios y Planes de mejora energética y auditorias energéticas integrales.

— Estudios y Planes municipales de prevención y lucha contra la pobreza energética.

— Berritzea kanpoko argi-instalazioak.

— Berritzea barneko argi- instalazioak.

— Berritzea airea girotzeko edo ur bero sanitarioko instalazioak.

— Berritzea energiaren inguratzaile termikoa.

— Ezartzea energia monitorizatzeko sistemak.

b) Energia berritzaileak eraikinetan, instalazioetan eta azpiegitura publikoetan:

— Egitea bideragarritasun azterlanak, energia berritzaileen bidez elikatutako barrutiko bero sareak edota elektrizitate banatuko sareak ezartzeko.

— Egitea bideragarritasuneko azterlanak eraikinetan, energia berritzaileko instalazioak jartzeko.

— Auditoriak egitea tenperatura baxuko eguzkiko instalazio termikoetan.

— Trukaketa geotermikoko instalazioak.

— Tenperatura baxuko eguzkiko instalazio termikoak.

— Energia termikoa ekoizteko biomasa erabiltzen duten instalazioak.

— Eguzkiko instalazio fotovoltaikoak eta instalazio eolikoak, autokontsumora bideratuak.

c) Beste azterlan, plan edo ekintza batzuk energiaren alorrean.

— c) Egitea azterlanak eta ekintza planak energiaren alorrean.

— Egitea tokiko azterlanak eta planak, prebentzioari eta pobrezia energetikoari aurre egiteko.

— Hedapen eta sentsibilizazioko ekintzak energiaren alorrean.

2. Laguntza programa honetan ez dira sartuko, Eraikuntzako Kode Teknikoak zati batean edo erabat ezarrita, energia aurrezpenaren oinarrizko betebeharrak bete behar dituzten instalazioak.

3. Eraginkortasun handiko teknologiak edo eskura dagoen teknologiarik hoberena erabiltzen dituzten instalazioetan eta ekipamenduetan egindako inbertsioak bakarrik hartuko dira halakotzat eta, beti ere, energiaren kontsumoa nabarmen murrizten badute eta ingurumen hobekuntza ekartzen badute.

4. Diruz lagundutako jarduketak martxan jartzeko behar diren dokumentu tekniko eta administratiboak prestatu ahal izateko behar bezainbat baliabide eduki behar ditu entitate eskatzaileak, bai bereak bai kanpokoak. 12. oinarriarekin eta baterakorrekin bat etorriz, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak diruz lagunduko ditu kanpoko baliabideak kontratatzeko gastuak.

5. Diru laguntzaren azken xede den proiektuaren arabera orubeak edo eraikinak okupatu edo erabili behar badira, proiektu hori udalerriko hiri antolaketako arautegiarekin bat datorrela jakinarazi behar da laguntza eskaeran. Halako kasuetan, behar den higiezina eskura duela egiaztatu behar du eskatzaileak.

6. Proiekturen bat diru laguntzarekin egina izanda, proiektu horretan patentatzeko moduko elementu prototipoak diseinatuko balira, eta elementu horiek erabiltzeko interesa edukiko balu Gipuzkoako edozein administraziok, aipatutako elementuak eskura jarriko zaizkio, jabetza intelektualari dagokion kosturik gabe.

— Renovación de instalaciones de alumbrado exterior.

— Renovación de instalaciones de iluminación interior.

— Renovación de instalaciones de climatización o agua caliente sanitaria.

— Rehabilitación energética de la envolvente térmica.

— Implantación de sistemas de monitorización energética.

b) Energías renovables en edificios, instalaciones e infraestructuras públicas:

— Estudios de viabilidad de implantación de redes de calor de distrito y/o redes de electricidad distribuidas alimentadas con energías renovables.

— Estudios de viabilidad de instalaciones de energías renovables en edificios.

— Auditorias de instalaciones solares térmicas de baja temperatura.

— Instalaciones de intercambio geotérmico.

— Instalaciones solares térmicas de baja temperatura.

— Instalaciones que utilicen biomasa para la producción de energía térmica.

— Instalaciones solares fotovoltaicas y eólicas en régimen de autoconsumo.

c) Otros estudios, planes y acciones en materia de energía:

— Estudios y planes de acción en materia de energía.

— Estudios y planes de prevención y lucha contra la pobreza energética.

— Acciones de divulgación y sensibilización en materia de energía.

2. No podrán acogerse a este programa de ayudas aquellas instalaciones cuya ejecución venga parcial o totalmente impuesta por el Código Técnico de la Edificación para el cumplimiento de las exigencias básicas de ahorro de energía.

3. Solo se considerarán aquellas inversiones en equipos e instalaciones que utilicen tecnologías de alta eficiencia o la mejor tecnología disponible y siempre que supongan una reducción significativa del consumo de energía y produzcan una mejora ambiental.

4. Las entidades solicitantes dispondrán de los medios idóneos, propios o externos, para la elaboración de los documentos técnicos y administrativos que resulten precisos para la puesta en práctica de las actuaciones subvencionadas, resultando los gastos derivados de la contratación de medios externos objeto de subvención por parte del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de conformidad con lo establecido en la base 12 y concordantes.

5. En el supuesto de que la subvención tenga como destino final la ejecución de proyectos que impliquen la ocupación o utilización de solares o edificios, deberá constar en la solicitud su correcto encaje en la normativa de planeamiento municipal correspondiente. En estos supuestos se deberá acreditar la disponibilidad del inmueble afectado.

6. Si con el apoyo de una subvención para acometer un proyecto se diseñaran prototipos de elementos susceptibles de ser patentados, en el supuesto de que resulte de interés el uso de los elementos anteriores por parte de cualquier administración guipuzcoana, éstos se pondrán a disposición de la misma sin coste de propiedad intelectual.

7. Diru laguntza jasoko bada, jarduketak hasi gabe egon behar du deialdiari dagokion urteko urtarrilaren 1ean eta burutu, hurrengo urteko azaroaren 1a baino lehen burutu beharko da. Epe hori amaitzean, diru laguntza jasotzeko eskubidea erabat edo zati batez galdutzat jotzeko prozedura bideratuko da.

*2. oinarria. Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.*

1. Hirugarren atalean xedatutakoa baztertu gabe, oinarri hauetako diru laguntzak bateragarriak dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatukoa, izan Europar Batasunekoa edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin.

2. Herri administrazio erakunde onuradunei dagokienez, oinarri hauetan arautzen diren diru laguntza hauek ez dira estatu mailako laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. artikuluko 1. atalean xedatutakoaren arabera, ez dituztelako betetzen bertan adierazitako baldintzak. Beraz, salbuetsita daude aipatutako Itunaren 108.3 artikuluak ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

Hala ere, merkataritza sozietateak diren onuradunei dagokienez, diru laguntzak Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/20013 Erregelamenduaren mende daude, «de minimis» diru laguntzei Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoaren mende, alegia (EBAO, 2013/12/24koa, L 352/1-8). Diru laguntza hauek «de minimis» dira; izan ere, pertsona juridiko edo fisiko bati emandako diru laguntza osoak ez du gaindituko 200.000 euroko muga hiru zerga ekitaldiren edozein alditan. Muga horren azpiko diru laguntzak merkataritzari ez dietela eraginik egiten edo ez dutela konpetentzia faltsutzen ulertuko da eta, beraz, ez dira Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluaren aplikazio esparruaren barruan sartzen.

Ondorio hauetarako, entitate eskatzaileak adierazi beharko ditu, ezarritako ereduaren arabera, dagokion zerga ekitaldian eta aurreko bi zerga ekitaldietan jasotako bestelako «de minimis» laguntzak.

3. Diru laguntzen guztizkoak inoiz ez du jarduera diruz lagunduaren kostua gaindituko, ez banaka ez beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera.

4. Diru laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero -diruz lagundutako proiektuaren benetako kostua kasu-, edo xede bereko beste laguntzaren bat jasoz gero, hartara diruz lagundutako jardueraren kostua baino gehiago jasoz, diru laguntza emateko ebazpena aldatzea erabaki daiteke.

5. Bestalde, iraunkortasun energetikoari lotutako jarduerak Eskualde Garapenerako Europako Fondoak (FEDER) finantzatu ahal izango ditu %50ean. Hala gertatuz gero, jarduera horiek Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamenduak (EB) xedatutakoaren mende egongo dira, horrek ezartzen baititu Eskualde Garapenerako Europar Funtsari, Europar Gizarte Funtsari eta Kohesio Funtsari buruzko xedapen orokorrak; eta, beraz, onuradunak bete beharko ditu kofinantzazio hori dela eta ezarritako obligazioak.

Zehazki, diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzak egiten badira, Europar Batasunaren FEDER bidezko kofinantzazioaren aipamena egin behar da zabalkunde horretarako erabiltzen diren material eta euskarrietan. Era berean, goiburu hau jarri behar da: «Europa egiteko modu bat».

7. La actuación a subvencionar deberá estar sin iniciarse a fecha de 1 de enero del año de la correspondiente convocatoria y deberá ejecutarse antes del día 1 de noviembre del año siguiente. Transcurrido dicho plazo, procederá la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención.

*Base 2.ª Financiación de las actividades subvencionadas.*

1. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado tercero.

2. Respecto de aquellos beneficiarios que sean administraciones públicas, las subvenciones reguladas en las presentes bases no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, por no cumplir las condiciones establecidas en la misma. Por tanto, quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

Sin embargo, respecto a aquellos beneficiarios que sean sociedades mercantiles, las subvenciones estarán sujetas al Reglamento (CE) n.º 1407/2013 de la Comisión de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (DOUE de 24/12/2013, L 352/1-8). Estas ayudas son calificadas de minimis puesto que ninguna ayuda total concedida a una persona jurídica o física determinada superará los 200.000 euros durante cualquier periodo de tres ejercicios fiscales. Se considerará que por debajo de este límite las ayudas no afectan al comercio o no falsean la competencia y por consiguiente no entran dentro del ámbito de aplicación del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

A estos efectos, la entidad solicitante deberá declarar, conforme al modelo establecido, sobre otras ayudas de minimis recibidas en el ejercicio fiscal correspondiente y durante los dos ejercicios fiscales anteriores.

3. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención -como el coste real del proyecto subvencionado-, o la obtención concurrente de otras aportaciones, excediendo el coste de la actividad subvencionada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

5. Las actuaciones vinculadas a la sostenibilidad energética podrán ser cofinanciadas en un 50% por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER), en cuyo caso estarán sometidas a lo dispuesto en el Reglamento (CE) n.º 1083/2006 del Consejo, por el que se establecen las disposiciones generales relativas al Fondo Europeo de Desarrollo Regional, al Fondo Social Europeo y al Fondo de Cohesión; ello implica el necesario cumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de las obligaciones establecidas por razón de dicha cofinanciación.

En concreto, si se realizan actuaciones de difusión de las actuaciones subvencionadas, se debe hacer mención a la cofinanciación comunitaria a través del FEDER en los diferentes materiales/soportes que se generen para esa difusión, incluyendo asimismo el lema «Una manera de hacer Europa».

Diru laguntza onartzeak berarekin dakar onartzea Erregelamenduko 7. artikuluko 2. apartatuaren d) letran jasotzen den zerrenda publikoan sartzeko baimena ematea.

Orobat, kontuan izan behar da FEDERen kofinantzazioak behartzen duela burutzen diren ekintzen informazio finantzarioa, administratiboa eta jarraipena artxibatuta edukitzera Euskal Herriko 2007-2013 FEDER Programa Operatiboaren azken saldoa ordaintzen denetik 3 urtez. Testuinguru horretan, onuradunaren betekizuna da, orobat, informazioa erraz eskuratzeko moduan egotea (kontabilitate sistema berezitua edo kodifikazio zehatza).

*3. oinarria. Diru laguntza jaso duten jardueren inguruko publizitatea.*

Diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa eman, publizitatea egin edo propaganda zabaltzen denean, euskaraz egingo da lehentasunez. Gaztelania erabiltzen bada, inoiz ez da erabiliko euskara baino gehiago, eta gehienez ere euskara erabiltzen den maiztasun berdinean erabiliko da. Halaber, informazio, publizitate eta propagandako ekintzetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren lankidetza jakinarazi beharko da, bere irudi arauak zainduz beti ere. Generoaren ikuspegia ere kontuan hartuko da eta, horregatik bada, ez da diskriminazio elementurik erabiliko ez hizkuntzan ez irudietan. Eskaeraren memorian diruz lagundutako jarduerari emango zaion hedapena azaldu behar da.

*4. oinarria. Entitate onuradunaren izaera.*

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, onuradun izateko debekurik ez daukaten Gipuzkoako Lurralde Historikoko entitate hauek eskura ditzakete oinarri hauetan arautuťako diru laguntzak.

a) Udalak eta udaleko erakunde autonomoak.

b) Udalerri eta eskualde mailako merkataritza sozietateak: Baldin eta haien helbide soziala eta zerga egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan badago, eta haien kapital soziala oso-osorik izaera publikokoa bada.

2. Onuradun izateko debekurik ez duela frogatzeko, delako entitateak erantzukizuneko adierazpena aurkez dezake.

Adierazpen formal hori egitea nahikoa da entitate eskatzailea administrazio publikoa denean; baina merkataritza sozietateek adierazpenean ageri diren datuak egiaztatu egin behar dituzte diru laguntza emateko ebazpen proposamena egin baino lehenago, eta horretarako hamabost eguneko epea izango dute errekerimendua egiten zaienetik aurrera.

*5. oinarria. Entitate onuradunaren betebeharrak.*

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak oro har ezarritako betebeharrak eta oinarri hauetatik eratorritakoak betetzeaz gain, entitate onuradunek diruz lagundutako jarduera egokiro eta erabat gauzatzeko behar diren tramiteak egin eta baimenak lortu beharko dituzte, eta hori guztia lanei hasiera ematen zaienetik behin betiko hartzen diren arte.

2. Diru laguntza jasotzen duten entitate onuradunek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuta lan egin behar dute, jarduketak bere xedea bete dezan; eta, horretarako, solaskide bat hautatuko dute, unean-unean erabakiak adostu eta hartzeko behar adinako gaitasuna izango duena.

La aceptación de la ayuda también supondrá la aceptación de ser incluido en la lista pública que se recoge en el artículo 7, apartado 2 letra d) del Reglamento.

Asimismo, la cofinanciación del FEDER supone la obligatoriedad de tener archivada la información financiera, administrativa y de seguimiento del desarrollo de las acciones que se llevan a cabo hasta que pasen al menos 3 años desde el pago del saldo final del programa Operativo FEDER del País Vasco 2007-2013. En este contexto, también es obligación del beneficiario que esa información esté fácilmente accesible (sistema de contabilidad separado o codificación específica).

*Base 3.ª Publicidad relativa a las actividades subvencionadas.*

Toda la información, publicidad y propaganda relativas a la actividad subvencionada deberá realizarse prioritariamente en euskera. En caso de que se utilice el castellano, nunca se hará en mayor medida que el euskera, y a lo sumo habrá de utilizarse en la misma medida. Además, en dichas actuaciones de información, publicidad y propaganda se hará constar la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa, conforme a las normas de imagen corporativa de la misma. Se incorporará también la perspectiva de género, no contemplando elementos de discriminación en el uso del lenguaje y de la imagen. En la memoria de la solicitud deberá señalarse la difusión que tendrá la actividad subvencionada.

*Base 4.ª Condición de entidad beneficiaria.*

1. Podrán optar a las ayudas las siguientes entidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

a) Ayuntamientos y organismos autónomos municipales.

b) Sociedades mercantiles municipales y comarcales con domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y cuyo capital social sea exclusivamente de carácter público.

2. La justificación por parte de las entidades de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria podrá realizarse mediante declaración responsable.

En todo caso, si bien la formalización de dicha declaración será suficiente para las entidades solicitantes que sean administraciones públicas, las sociedades mercantiles deberán acreditar la realidad de los datos contenidos en la misma con anterioridad a la propuesta de resolución de la concesión, para lo cual dispondrán de un plazo de quince días a partir del requerimiento al efecto.

*Base 5.ª Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

1. Además de cumplir las obligaciones que con carácter general se establecen en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y las que se desprenden de las presentes bases, las entidades beneficiarias deberán realizar cuantos trámites y obtener cuantas autorizaciones sean precisos para la correcta y total ejecución de las actuaciones subvencionadas, todo ello tanto desde el inicio de los trabajos como hasta la recepción definitiva de los mismos.

2. Asimismo, las entidades beneficiarias de las subvenciones deberán actuar coordinadamente con la Diputación Foral de Gipuzkoa para el buen fin de la actuación. A tal efecto, designarán un interlocutor con capacidad suficiente para adoptar las decisiones que se acuerden en cada momento.

3. Ez badira osorik edo behar bezala betetzen aipatu obligazioak nahiz oinarri hauen eraginez entitate onuradunek bete beharreko gainerakoak, dagokion proportzioan gutxituko da azken finean jaso beharreko diru laguntza edo jasotakotik zenbateko bat itzuli beharko da, itzultzea badagokio.

*6. oinarria. Diru laguntzak emateko prozedura hastea.*

Diru laguntzak emateko prozedura lehia sistema bidez izango da eta ofizioz hasiko da, urtero egingo den deialdiaren bitartez. Deialdi hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

*7. oinarria. Eskaerak aurkeztea.*

1. Eskaerak internetez aurkeztu behar dira nahitaez, hauetan xedatutakoa kontuan hartuta: 2010eko irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena; eta 2014ko otsailaren 10eko 14-ZO/2014 Foru Agindua, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko diru laguntza espedienteen zenbait tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko betebeharra arautzen duena (2014ko otsailaren 17ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 31. zk.).

Eskaerak internetez aurkeztuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren (https:/www.gfaegoitza.net) bidez, diru laguntzen atarian sartu eta bertan horretarako eskuragarri jarritako berariazko inprimakia betez. Horretarako, sinadura elektronikoa eta pasahitza erabiliko dira, 2006ko irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duenak, jasotakoaren arabera.

2. Eskaera egiten duen entitate bakoitzak gehienez bi diru laguntza eskaera egin ahal izango ditu. Eskaera guztiak deialdian ezartzen den dokumentazioarekin batera aurkeztu behar dira; dokumentazio hori eranskin gisa txertatuko da aplikazio informatikoan.

3. Baldin eta eskatzen diren agirietakoren bat Gipuzkoako Foru Aldundiko organo baten esku badago, entitate eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, 35. artikuluko f) atalean xedatzen duena, betiere horien prozedura bukatu zela bost urte baino gehiago igaro ez bada; baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu edo egin ziren adierazita.

4. Eskaera edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak osatu gabe daudela edo akatsen bat dutela ikusten baldin bada, akatsak zuzendu edo behar diren agiriak ekar ditzan hamar eguneko epea emango zaio entitate eskatzaileari; eta ohartaraziko zaie ezen, epe horren barruan hori egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 71.1 artikuluan xedatutakoarekin ados, eta 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

*8. oinarria. Izapidetzea.*

1. Izapidetzearen hasierako fasean, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko Idazkaritza Teknikoak diru-laguntza eskaeren aurre ebaluazio bat egingo du: Hau da, egiaztatuko du ea eskatzaileek entitate onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten eta ea aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoen eta zuzena den.

2. Ondoren, Ingurumen Zerbitzuak beharrezkoak iruditzen zaizkion jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz, ebazpen proposamena egin ahal izateko behar diren datuak zehaztu, jakin eta egiaztatzeko.

3. El incumplimiento parcial o cumplimiento insuficiente de las obligaciones señaladas, así como de cualesquiera otras que incumban a las entidades beneficiarias en virtud de lo dispuesto en estas bases, determinará la minoración proporcional de la subvención que finalmente haya de percibir o, en su caso, el importe a reintegrar.

*Base 6.ª Iniciación del procedimiento de concesión.*

El procedimiento para la concesión de subvenciones será el de concurrencia competitiva y se iniciará de oficio mediante la convocatoria que se realizará anualmente y que será publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Base 7.ª Presentación de solicitudes.*

1. Las solicitudes se presentarán obligatoriamente vía Internet, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, en la Orden Foral 14-ZO/2014, de 10 de febrero, por la que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 31, de 17 de febrero de 2014).

La presentación vía Internet de solicitudes se realizará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, (https://www.gfaegoitza.net), en la que se accederá al portal de subvenciones y se cumplimentará el formulario específico habilitado a tal efecto, utilizando la firma electrónica o la clave operativa contempladas en Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre, por el que se regula la acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral.

